

Goin' Home



Afrika Criado, Hegoi Castillo, Ikram Miloudi eta Irene Plaza.

## Aurkibidea

2. orria - Ideia

3. orria - Balioa

4. orria - Bezeroen segmentazioa

5. orria - Kanalak

6. orria - Bezeroekiko harremanak

7-8. orria - Diru sarreren iturriak

9-10. orria - Funtsezko baliabideak

11. orria - Funtsezko jarduerak

12. orria - Funtsezko aliantzak

13-15. orria - Kostuen egitura

## Ideia:

“Goin’ Home” app-a etxera bakarrik bueltatu nahi ez duten pertsonentzako da. Gauean, oso berandu denean, pertsona asko, batez ere emakumeak, beldur dira etxera bakarrik bueltatzerako orduan lapurretak, bortxatuak edo erasotuak izatea.



Gure aplikazioari esker, erabiltzaileak lagunduta joango dira beraien etxeetara, bidean, bakarrik joateagatik suertatu daitezkeen eragozpenak sahiestuz.

Txat metodo baten bidez, irteerako kokapena, hartuko duen norabidea eta parte hartuko duten pertsonak definitzen dira. Ibilbidea amaitutakoan, zure laguntzaileak izar-metodo baten eta iruzkin baten bidez esperientzia baloratzeko aukera izango dute.

Aplikazioak ere larrialdietako botoi bati esker, edozein momentuan poliziarekin kontaktuan jartzeko aukera eskeintzen du.

App-a erostean, erabiltzailearen nortasuna egiaztatu behar da, nortasun agiria eta aurpegi-azterketa egiaztatuz, txatetan sartu ahal izateko eta ibilbide osoa GPS-ez jarraituta egongo da.